



Hezkuntza sailburuordearen 2022ko otsailaren 11ko EBAZPENA. Horren bidez zehaztu dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan 2021/2022 ikasturtean zehar oinarritzko kompetentzien diagnostikoa ebaluatzeko prozesuan aurrez ikusitako probak egiteko jarraibideak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan egindako ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duenak, definitzen ditu ebaluazio diagnostikoaren helburua, aplikazio eremua, xedea, edukia, haren parte diren ebaluazio-prozesua eta hobekuntza-prozesua.

Ebaluazio diagnostikoko probak funts publikoak dituzten ikastetxe guztietan aplikatuko dira, 2015eko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuko 54. artikulua xedatutakoa betez; horren bidez Oinarritzko Hezkuntzako curriculumak xedatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri da.

Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeentzat prestakuntzarako eta orientazio gisa balio du ikastetxeentzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat informazioa eskaintzen du. Datu zorrotz eta fidagarriak oinarri hartuta, hezkuntza arloko jardunbideari eta ikastetxeko hezkuntza arloko plangintzaren inguruan erabakiak hartzeari buruzko hausnarketa bultzatu nahi du hobekuntzarako Esku-hartze Plana aplikatuta emaitzak hobetzen laguntzeko.

2021-2022 ikasturteko **Ebaluazio Diagnostikoak** etapa amaierako azken ikasturteetan aplikatuko da, eta bi aplikazio ditu. bi aplikazio ditu:

- Etapa amaierako ebaluazioa, ikastetxeen lagin bati zuzenduta (Lehen Hezkuntzako 6.mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.mailan). Etapa bakoitzean 120 ikastetxek parte hartuko dute.
- Etapa erdiko ebaluazioaren pilotajea (Lehen Hezkuntzako 4.mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan). Etapa bakoitzean 15 ikastetxek parte hartuko dute.

Ikasleei diagnostikorako probak aplikatzeko, aplikazio-prozedura zehatza eta kontrolatua behar da, eskuratuko diren emaitzetan zorrotasun maila handia bermatu ahal izateko.

Horrekin lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan diagnostikoaren ebaluazio-prozesuak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 6.1 artikulua aurrez ikusten du Hezkuntza Sailburuordetzaren Ebazpen bidez ezarriko dela ikasturte bakoitzerako proben aplikazioa egingo den aldi zehatza eta horien iraupena. Halaber, Agindu horretako Azken Xedapenetako Lehenengoak eskumena ematen dio Hezkuntza Sailburuordetzari bertan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Beraz, 2021-2022 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan oinarritzko kompetentzien ebaluazio diagnostikoko probak egiteko jarraibideak emateari ekin dio. Horretarako:



XEDATU DUT:

1. **Etapamaierako** ebaluazio diagnostikoa nahitaezkoa da laginean hautatzen diren ikastetxe guztietan, eta ikastetxeko zuzendaria arduratuko da ebaluazio hori honako atal hauen arabera garatzeaz:
 - a) Ebaluazioan parte hartuko duten ikastetxeetako ikasleei ebaluatuko zaizkien kompetentziak:
 - Lehen Hezkuntzako 6. Maila
 - i. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - ii. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - iii. Matematikarako kompetentzia.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.
 - i. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - ii. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - iii. Matematikarako kompetentzia.
 - iv. Zientziarako kompetentzia.
 - b) Blokeka banatutako ikastetxeetatik hautatutako ikasleei ebaluatuko zaizkien gaitasunak. Ikasle guztiek bloke bakoitzeko probetako bat egingo dute.
 - LH6: Zientziarako kompetentzia ala Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ala Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
 - DBH4: Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ala Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
 - c) Azkenik, ikasle guztiek bete beharko dute testuinguruari buruzko galdetegi bat. Bertan bilduko dira ezaugarri indibidualekin lotutako eta ikastetxearen inguruko galderak, baita euskal hezkuntza-sistamarako interesgarriak diren beste arlo batzuk ere (euskararen erabilera, berdinen arteko tratatu txarrei buruzko pertzepzioa, genero-berdintasuna, ...).
 - d) Etapamaierako ebaluazio diagnostikoko probak ondoz ondoko bi eskola-egunetan aplikatuko dira, goizeko saioetan. Bi egun horietan, parte hartuko duten ikasleen ordutegia ebaluazio honetako antolaketa-beharren arabera egokitu beharko da. Aplikazio-egunetako bakoitzean, ikasleek errendimendu-probak egingo dituzte eta proben artean atsedeen-aldiak izango dituzte.



- Lehen Hezkuntzako 6.maila:
 - i) *Lehen eguna:*
 - (1) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - (2) Zientziarako kompetentzia ala Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
 - (3) Atsedeen-aldia.
 - (4) Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ala Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
 - ii) *Bigarren eguna:*
 - (1) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - (2) Matematikarako kompetentzia.
 - (3) Atsedeen-aldia.
 - (4) Testuinguruari buruzko galdetegia.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila:
 - i) *Lehen eguna:*
 - (1) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - (2) Matematikarako kompetentzia.
 - (3) Atsedeen-aldia.
 - (4) Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ala Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
 - ii) *Bigarren eguna:*
 - (1) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - (2) Zientziarako kompetentzia.
 - (3) Atsedeen-aldia.
 - (4) Testuinguruari buruzko galdetegia.
 - e) Probak aplikatzeko aldia honako hauxe izango da:
 - i) Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak: 2022ko bigarren seihilekoa.
 - ii) DBHko 4. mailako ikasleak: 2022ko hirugarren hiruhilekoan zehar.
 - iii) Aplikazioan sor daitezkeen ezohiko edo ustekabeko egoerak konpontzeko, aurreko puntuetan adierazitako aplikazio-aldiak egun batzuez luza daitezke.
- 2) 2021-2022 ikasturtean, **etapa erdian** egingo diren ebaluazio proben pilotatzea honela garatuko da:
- a) Honako oinarritzko kompetentzia hauek ebaluatuko dira:
 - i. Matematikarako kompetentzia.
 - ii. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
 - iii. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - b) Probak egun bakarrean aplikatuko dira; hala, laginean aukeratutako ikasleak hiru kompetentzian soilik ebaluatuko dira.
- 3) Hezkuntza Sailak kanpoko enpresa bati esleituko dizkio, lehiaketa publiko bidez, talde eta ikastetxe bakoitzean kanpoko probak aplikatzearekin lotutako lanak. Aukeratutako enpresaren lana ISEI-IVEIk gainbegiratu du zuzenean, eta zorrotz bete beharko ditu



ebaluazio diagnostiko honetarako definitutako irizpide estandarizatuak eta protokolo guztiak.

- 4) Aplikazio-aldian, bai ISEI-IVEIk, bai aukeratutako enpresak, ikastetxeei arreta emateko zerbitzu iraunkorra izango dute funtzionamenduan, aplikazio-prozesu horretan sor daitezkeen arazo guztiak azkar eta modu eraginkorrean konponduko direla bermatzeko.
- 5) Proben aplikazioan esku hartuko duten ikastetxetik kanpoko langileek behar bezala identifikatuta egon beharko dute. Agindu horretako 6.3 artikuluan adierazita dagoen moduan, zuzendaritza-taldeari dagokio, Ebaluazio Diagnostikoa Koordinatzeko Batzordearen bidez, probak behar bezala aplikatuko direla bermatzeko lagungarriak diren antolaketa mailako alderdi guztietan laguntzea eta bitartekoak eskaintzea.
- 6) Ebaluazio diagnostiko honen aplikazioaren garapenean honako alderdi hauek izango dira kontuan:

- a) Etapa amaierako Ebaluazio Diagnostikoan, ikastetxe bakoitzeko etapa bereko talde guztiek probak aldi berean egin beharko dituzte, egun berean eta protokolo eta aplikazio-irizpide berberen arabera, ikasle guztiek probak baldintza beretan egiten dituztela bermatzeko.
- b) Ikasleak aplikazioko gelan egongo dira taldearekin ebaluazio honetako saio bakoitzerako aurrez ikusitako denbora amaitu arte.
- c) **Zuzendaritza-taldeari edo hark eskuordetutako pertsonari dagokio ikasleek aplikazio-prozesuan zehar jokabide ona izango dutela ziurtatzea, baita bi aplikazio-egunetan errendimendu-probetako bakoitzaren artean adierazitako atsedeen-aldian ikasleak antolatzea eta zaintzea ere.** Zuzendaritza-taldeak, 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 5.3 artikuluan definitutako Koordinazio Batzordearen bidez, antolaketa mailako neurri egokiak hartuko ditu ikastetxeko ikasleek probak ahalik eta baldintza onenetan egingo dituztela **bermatzeko**, ikasleen errendimendua eragotz lezakeen etenik eta distrakzioirik gabe.
- d) Zuzendaritza-talde bakoitzak aurrez jakingo du, jakinarazpen ofizial baten bidez, zer datatan egingo den aplikazioa bere ikastetxean. Erabat arrazoitutako egoerak direla eta probak proposatutako egunetan egin ezin badira, ikastetxeko zuzendariak egoera horren berri emango du, aldaketa posiblea adosteko.
- e) Ebaluazioaren aplikazioa ikastetxearen egoerarako egokiena izan dadin, **urtarrilaren eta otsailaren artean, LHrako, eta otsailaren eta apirilaren artean, DBHrako, bidalitako galdetegi baten bidez ekipamendu informatikoen eta konektagarritasuneko ezaugarrien inguruko inbentarioa egingo da. Galdetegi horretan, ahalik eta zehatzen islatu behar da ebaluazio- probak egiteko ikastetxean zer ekipamendu mota dagoen. Gero, ikastetxearekin adostuko da aplikazio-sistema egokiena.**

Ahal den neurrian, ikastetxeei 2021/2022 ikasturtean emandako ekipamendu informatikoak erabiliz egingo dira probak.

- f) Proben aplikatzailea arduratuko da ebaluazioan erabiliko diren tresna eta material guztiak zaintzeaz. Horrez gain, erabateko isilpekotasuna bermatu beharko du. Hori dela eta, uneoro eragotzi beharko du aplikazio-prozesutik kanpoko inork horiek ezagutu edo erabili ahal izatea.
- g) Talde bakoitzean probak egitean, **ebaluazio-gelaren barruan egon beharko dute aplikazioaz arduratzen den pertsona eta ikastetxeko zuzendariak proposatutako pertsona bat**, ikasleen jokabideari dagokionez arazoren bat izanez gero edo edonolako anomalia izanez gero, egoera konpontzen laguntzeko. Era berean, une jakin batzuetan eta aukeratutako gela batzuetan, aplikazio-prozesuaren gainean kontrol-funtzioak dituen beste pertsonaren bat ere egon daiteke (Hezkuntzako Ikuskaritza, ISEI-IVEI edo enpresa aplikatzailea).
- h) ACI duen ikasleren bat eskolatuta dagoen taldeetan, pertsonaren baten laguntza behar badu (interpretea edo zeinu-hizkuntzako irakaslea, hezkuntza-laguntzako



aditua, IBT-CRIko langile teknikoak) probak egin bitartean bertan egon ahal izango da ikastetxeak esleitutako irakasleaz gain. Laguntzaile horrek bere funtzioa garatzean ezagutuko dituen probetako edukiaren inguruan isilpekotasun- konpromisoa sinatzeko betebeharra izango du.

- i) Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ikastetxearen oinarrizko ezaugarri batzuen inguruko testuinguruaren gaineko galdetegia beteko du. Datu horiek erabiliko ditu ISEI-IVEIk emaitzak interpretatzeko.
- j) Talde bat egungo egoera pandemikoaren ondorioz konfinatuta balego, data alternatibo bat bilatzen saiatuko litzateke.

7) Galdetegia eta kompetentzien errendimendu-proben aplikazioa ordenagailu bidez egingo da. Horretarako, aplikazioaren beharretara ondoen egokitzen den ikastetxeko ekipamendu informatikoa erabiltzen saiatuko da, honako irizpide hauen arabera:

- a) Ikastetxeak bermatu beharko du ebaluazio-proben aplikazio-aldian ekipo informatikoak sare elektrikora konektatuta egongo direla edo, bestela, ebaluazioko hiru probak garatzeko (goiz osoa) beharrezko iraupena duten bateriak izatea.
- b) Aplikazioa Interneteko konexio bidez egingo balitz (on line), ekipo informatikoen (IKT) arduraduna den ikastetxeko norbaitek laguntzeko prest egon beharko du aplikazio-egunetan.
- c) Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako probetan, entzumenari eskainitako atalerako, zenbait entzunaldi egingo dira. Hori dela eta, ikastetxeak bermatuko du ikasle guztiek izango dituztela konekta daitezkeen aurikular pertsonalak, eta aplikazioa baino lehen egiaztatu beharko dute ekipamendu informatikoetan funtzionatzen dutela, hizkuntza- komunikaziorako entzumeneko probak egingo dituzten bi egunetan erabili ahal izateko. Helburua da ikasle bakoitzak modu autonomoan eta higie-nebermeekin entzun ahal izatea entzunaldi horiek.

Horretarako, ezinbestekoa da ebaluazioa egin aurretik ikastetxeak proben simulazioa egiteko data bat izatea. Simulazio horren helburua da soluzioaren bideragarritasun teknologikoa bermatzea eta ikasleak probarekin ohitzea. Simulazioa egitea ezinbestekoa izango da.

- d) Kanpoko aplikazioaz arduratuko den pertsonak, ikastetxera bisita egin bezperan, ikastetxeak proben aplikazioan erabiliko dituen ekipamendu informatiko guztiak berrikusiko ditu eta egiaztatuko du beharrezko baldintza teknikoak betetzen dituztela. Komeniko litzateke, bisitan, ikastetxeko informatikaren arduraduna bertan egotea.
- e) Probaren bortxaezintasuna bermatzeko, beharrezkoa izango da ikasleen ekipamenduan segurtasun-softwarea instalatzea eta konfiguratzeko. Bai enpresa aplikatzaileak bai ISEI-IVEIk instalazio eta konfigurazio horretarako euskarria emango dute, eta ekipamendu informatikoaz arduratzen den zentroko langileen parte-hartzea ezinbestekoa izango da.

8) Probak aplikatu baino egun batzuk lehenago, ebaluazio honetan parte hartuko duten talde bakoitzeko tutoreak ikasleei proben helburuen, ezaugarrien eta garrantziaren berri eman beharko die. Era berean, ISEI-IVEIk ikastetxe guztiei ebaluazio-probak egiteko jarraibide orokorrak bidaliko dizkie aplikazio-aldia baino aste batzuk lehenago, eta haien esku utziko ditu kompetentzia guztietako proben simulazio-adibideak eta liberatutako itemak, hala, ikasleek proben formatuarekin aurretik ohitzeko aukera izan dezaten. **Ikasleei ez zaie esango aplikazioko data zehatzak zein diren.**

9) Hezkuntza Ikuskaritzak proben aplikazio-prozesuaren kontrola egingo du taldeen lagin batean, ebaluazio honetarako definitutako irizpide estandarizatu guztiak errespetatzen direla egiaztatzeko. Lan horren ondoren, Hezkuntzako Ikuskaritzak laburpen-txostena egingo du, eta hori Hezkuntzako Sailburuordetzara eta ISEI-IVEIra bidaliko dute. Txosten



horretan bilduko dira aplikazio-prozesuan detektatutako arazoak, haren balorazio orokorra eta egokitzat hartutako hobekuntza-proposamenak.

- 10) Etapa amaierako ebaluazioa egindakoan, honako txosten hauek egingo dira:
- a) Ikastetxearen behin-behineko txostena (2022ko ekainean LH eta irailean DBH).
 - b) Ikastetxeko behin betiko txostena (2022ko azaroa).
 - c) Hezkuntza-sistemaren txosten exekutiboa (2023ko otsaila).
 - d) Txosten horiek bidaltzean, kontuan hartu beharko da izaera pertsonaleko datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoa, baita informazioaren sarbide, erabilera eta tratamenduari buruzko 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 7. Artikuluan adierazitako berme guztiak ere.



- 11) Jasotako emaitzek ikastetxe bakoitzaren barne-ebaluazioen informazioa osatzeko balioko dute, hobekuntza-prozesuarekin jarraitzeko, 2008ko abenduaren 2ko Agindu horretan 8. artikuluan adierazten den moduan. Hobekuntza-prozesu horretan, 2022ko ebaluazioan lortutako emaitzez gain, aurreko ebaluazio diagnostikoetan lortutakoak ere kontuan hartuko dira, baita ikastetxeko aurreko hobekuntza-planetan definitutako eta adostutako jarduketa-proposamenak eta Hezkuntza Sailak izaera orokorrarekin ezarritako hobekuntza-helburuak ere.

Gasteizen, 2022ko otsailaren 11a

Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntza sailburuordea